

Liburutegiko balantzea egin du Anoetako Udalak

Erabiltzaile kopuruak gora egin badu ere, gehiago igo daitekeela uste du alkateak

Anoeta. Urte bat pasa da Anoeta Euskadiko Liburutegi Nazionalaren sare informatikoan sartu zenetik eta Udalak balantzea egin du. Hala, Internet bidezko kontsulta eta maileguek gora egin dutela ondorioztatu dute. Erabiltzaileek Internet bitartez eta tokitik mugitu gabe 163 udalerrik osatzen duten 219 liburutegik osatutako ondarea eskura dezakete. Ale jakin bat kontsulta dezakete, alearen informazio-fitxa behatu, erreserba egin eta mailegua eskatzeko aukera ere badute. Gainera, mailegaturiko alea Anoetako udal liburutegian bi edo hiru egunetan izaten da.

Liburutegia sarean barneratu zenetik urte bat pasa ondoren udal liburutegiaren erabiltzaileen kopurua gora egin du baina "kopuruak oraindik gora" egin dezakeela uste du Fidel Azpiroz alkateak. Liburutegiko erabiltzaileen adin tarteari dagokionez, gazteek osatzen dute erabiltzaile kopuru gehiena.

Azken sei hilabeteetan hainbat datu jaso eta balorazioa egin dute udal ordezkariak. Liburutegian 1.375 mailegu egin dira. Horrek, hilabeteen, batezbesteko 230 titulu suposatzen du. Liburutegia ELSNko (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) zuzeneko katalogoan barneratu aurretik, batezbesteko 220 titulu mailegatzen ziren. Beraz, sare honetan sartzean maileguek %4,5 egin dute gora.

Liburutegien arteko maileguei dagokienez, kanpoko bazkideen sei eskaerei egin diete arreta. Bestalde, 18 titulu jaso dira, horietatik 3 Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneakoak eta gainontzekoak beste liburutegietatik jasotakoak izan dira. OPAC (Internet bitartez ELSN katalogoari eginiko kontsultak) sistemaren bidez eginiko kontsultak 318 izan dira. Une honetan Anoetak sailkatu eta katalogatutako 8.268 dokumentu ditu. Ale gehienak Udalak berak eskuratzen ditu eta, kasu batzuetan, beste erakundeetatik etorritako bildumak ere eransten dira, hauen artean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskainitako Euskadi Generikoa aipa daiteke (euskarazko 400 alerekin). >m.s.s.